



# Presta dezagun Europa COVID-19aren aldaeretakarako: HERA inkubagailua

2021EKO OTSAILA

Europar Batasuna jo eta ke ari da lanean bermatzeko **europar guztiek ahalik eta lasterren eskuratu ahal izatea COVID-19ren aurkako txertoak**. Baimendutako txertoak eraginkorrak dira gaur egungo birusaren aurka.

Aldi berean, birusaren **aldaera berriei aurre egiteko** prestatu behar dugu, aldaera horien aurkako txerto eraginkorrak garatuz eta ekoiztuz, handizka eta azkar.

Horrexegatik, Europako Batzordeak **HERA inkubagailua** jarri du martxan. Helburua da zientzia, industria eta aginte publikoak bide beretik abiaraztea, eta eskura ditugun baliabide guztiak aprobetxatzea, Europak mehatxu honi erantzun ahal izan diezaion.



## GILTZARRIAK PRESTAKUNTZA BULTZATZEKO ETA GAITASUN HANDIAGOA IZAN DEZAGUN ALDAERETARA EGOKITZEN DIREN TXERTOAK GARATZEKO



### 1. BIRUSAREN ALDAERA BERRIAK ATZEMATEA ETA ANALIZATZEA

**Gaitasun handiagoa behar dugu aldaeren ezaugarriak zehazteko** (genoma sekuentziatzea).

Ahalbidetu behar da aldaera berriei buruzko **informazioa etengabe trukatzeko** txerto berri edo egokituak lantzen ari diren alderdi interesdun guztiekin.

**Txertoekiko erresistenteak diren aldaeren artean, identifikatzea eta adostea** zein diren kezkarrienak.

